

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko otsailak 17 · 1259 zenbakia

EUSKAL LITERATURARI HARIXA EMOTEN



EUKi
ASEGURUAK



AUTO ASEGURUA

MOTORRA EDO FURGONETA

... BAITA QUAD-A,
AUTOKARABANA,
KAMIOIA,
BURU TRAKTOREA,
AUTOBUSA,
ATOIAK...

**AUTO
ASEGURU
ESKANTZA**

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN
GALDETU GURE ESKANTZARI BURUZ!**

Informazio gehiago: eukiseguros.com

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 80
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INICIACIONES
TECNOLOGICAS
E.I.T.

TELAKOITZAREN
DIBUJAGARREN
SERBITZUA

Info: @irotecna.com 332. 943 80 13 80
AJT Sthortasuna S.L.p.
Barrera, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitasako Zuhaitz

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 87 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Orkizu 29an (Tel. 943 12 74 81)

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioa
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak / Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZITATEA

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com

Jarraitu gaitzazu!



Ikasenpresa Azokaren 12. edizioa egin zen aurreko astean Eibarren. EAEko Lanbide Heziketako 1.800 ikasle inguru bildu zituen ekimenak eta parte-hartzaileek kurtsuan zehar landu eta sortu dituzten enpresa-proiektuak edo ikasenpresak erakutsi zituzten jendearen aurrean, Untzagan eta Txaltxa Zelaian ipinitako hiru karpetan banatuta egon zen azokan.

Kezka Dantza Taldearen eskutik koko-dantzari eta koko-marru konpartsa ibili zen zapatuan Eibarren. Goizeko lehen agerraldia Errebal Plazan egin eta, jarraian, Gorosta eta Mandiola auzoetako baserrietara joan ziren koko-eskean. Arratsaldean, berriz, Eibarko kaleetan egin zuten kalejira, Mauxitxa txarangarekin batera.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Maider Aranberri

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Aukerak eskaini... eta kasurik ere ez!

Hemen ez dago kultura sustatzeko interes nahikorik. Egiptologiako nire bilduma (20 urtetan baino gehiagotan osatutakoa eta asko hobetu zena Portalean 2004an egindako erakusketarekin) doan eskaintzen diet eta ez dute nahi. 50etik 100 metro karraturako espazioa besterik ez lukeela behar esan diedanean, halakorik ez dutela erantzun didate.

Egiari helduz, bazegoen bizikletaren museoa egiteko proiektu bat, baina momentuz ez dago ezer zehatzik; Zuloagaren bildumarekin gauza bera; Kafe Antzokia (Durangon Udalak hartuko du bertako zerbitzuaren kostoa bere gain) hemen ezartzeko, ezer ez... eta horrela goaz. Ez da denbora asko turismo bulegoa zabaltzarena ere aipatu zela; baina, zertarako?

Dagoenak (armagintza industriaren museoa, gerra zibilaren interpretazio zentroa) ordutegi murriztuak ditu. Zer erakusten diegu bisitatzen gaituztenei? Pintxopotea eta domeketako bermouta. Futbola. Eta erakusketak Portalean, kultur programatzaileen gustokoak direnak.

Ba hori, oso haserre nagoela. Azkenean nire bilduma merezi duen balioa onetsiko dion Euskal Herritik kanpoko erakunde bati emango diot... eta horrek izorratu egiten nau, eibartarrok eta bisitatzen gaituztenek ikustea gustatuko litzaidakeelako.

Santi Entrena

Astean esanak



Ehundik gora dira azken hamar urteotan Israelgo preso palestinarren espermatik ugalketa artifizialaren bidez jaiodiren haurrak. Ugalketa erresistentzia-arma da borroka demografikoan aurrera egiteko eta, horregatik, askatasunaren enbaxadore izenez ezagutzen dira neke handiak eta gero militanteen hazietatik jaiodiren haur horiek. Izan ere, ez da batere erraza segurtasun handiko espetxeetako kontrolak gainditzea, ondoren Zisjordaniako edo Gazako ugalketen zentroetara eramatea eta 48 orduko epean prozesua biribilduko duen emakumearen gorputzean xertatzea. Gutxiak lortzen dute eta, horregatik, ospatu eta horren berri harrotasunez zabaltzen dute ume bat jaiotzen den aldiro, kausaren aldeko lorpen handia baita.

PILAR KALTZADA, kazetaria

Gure burmuina gara eta burmuin hori gutxinaka garatzen da. Ez da denborarik izan aldaketa teknologikoei egokitzea ahalbidetuko ligukeen bilakaera biologikoa egiteko. Zentzu batzuetan gure gizartea eta gure burmuinaren beharrak ez doaz norabide berean; lo egiterakoan, esaterako. Gauza bera gure arteko harremanei dagokienez, ume txikiaren kasuan arriskutsuagoa bihurtzen dena. Euren lehenengo 18 hilabeteetan lengoia da funtsezkoen: horretara ez baditugu zabaltzen, bizitza osorako atrofia izango dute. Mezu hau gurasoentzat da: asko dira euren telefonoen hatzaparretan harrapatutakoak, euren seme-alabekin hitz egiten ez duenak. Mugikorren arriskuez dihardugunean, gehienek pantailek umeengan sor ditzaketen arazoetan zentratzen dira. Baina pantailekin arazoak dituztenak gurasoak dira, euren seme-alaberengandik aldentzen ditzutelako. Teknologia, azken batean, umeen ikasbidearen esparrua murrizten du, gurasoen eskutik.

STANISLAS DEHAENE, neurozientifikoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDO JAUSI → Gustatu. “Ondo jausi jako esan detsazuna”.

Ondo egokitu. “Jakia ondo jausten jatzu; ez hala be frakak”.

ONDO ZAINDU → Ondo kudeatu, administratu. “Ondo zaindutako irabazi laburra hobe da, zaindu bako irabazi haundixa baiño”.

1982

Aratosteak zortzi egunez ospatu ziren

Eibarko Udal Artxiboak 1982ko Aratosteetako irudiak berreskuratatu zituen 2020an, hainbat daturekin batera: urte horretan zortzi egunez ospatu ziren Eibarren Aratosteak eta jaiek 850.000 pezetako aurrekontua izan zuten. Besteak beste, Antxinako Eibartarrak karrozaren desfilea egin zen.



Farmaziak

BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 19
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 24
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepedeak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Pedro Maria Ibaibarriaga Eraña.** 93 urte. 2023-02-07.
- **Pedro Etxebarria Egaña.** 79 urte. 2023-02-08.
- **Jose Del Moral Bustos.** 86 urte. 2023-02-08.
- **Mfedla Reghioui.** 60 urte. 2023-02-08.
- **Jesus Maria Airas Salgado.** 68 urte. 2023-02-09.
- **Lucia Andia Mauleon.** 90 urte. 2023-02-09.
- **Zorion Astigarraga Alberdi.** 89 urte. 2023-02-10.

Jaiotakoak

- **Mayar Aoufi.** 2023-01-27.
- **Mikel Agirrebeña Alberdi.** 2023-02-02.



Aurreko barixakuan aurkeztu zuten ekimena Debegesa garapen agentzian.

TEK Azitain, Gipuzkoako industria-enpresen lehen energia-komunitatea

Gipuzkoako industria-enpresen lehen energia-komunitatea sortu da Eibarren, Azitaingo industrialdean. TEK Azitain (Tokiko Energia Komunitatea) izen bereko industrialdean egongo da, eta 347 plaka fotovoltaiko instalatuko ditu industrialdeko zortzi enpresari (Acha Herramientas, Codesyntax, Hanna Instruments, Inkubagailua Eibargunea, Jose Maria Irazabal, Manufacturas Resort, Neurtek eta Kirolobet) energia emateko.

Proiektuan parte hartzen duten zortzi enpresa horiek izaera juridiko propioa duen energia-komunitate bat osatu dute proiektua martxan jartzeko eta aurreko barixakuan aurkeztu zuten proiektua. Ekitaldian Iñigo Ansola Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia, José Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Foru Diputatua, Jon Iraola Eibar-

Eguzki-plakek sortuko duten energia bazkideen kontsumo osoaren %25 ingurukoa da, eta urtean 972 tona CO2 isurtzea saihestuko da

ko alkatea, Juan Angel Balbás Debegesa Zuzendari Nagusia, TEK Azitain proiektuko enpresak, Juan Diego Edinor enpresako kontseilari delegatua eta Mari Carmen Lazkano Deba Bailarako Industrialdeko kudeatzailea egon ziren, besteak beste.

TEK Azitain Debegesa eskualdeko garapen agentziak eta enpresek sustatu dute, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE), Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren eta Eibarko Udalaren laguntzarekin, eta Edinorrek diseinatutako ereduaren arabera eratu da. Azaldu dutenez, “Edinor Petronorren %100 filiala da, eta energia-komunitateen garapenean espezializatuta dago. Proiektuak, hasierako bideragarritasun-azterketa egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren laguntza ekonomikoa izan du, baita Energiaren Euskal Erakundeak kudeatzen duen Next Generation Autokontsumorako Programaren laguntza ere”.

1.086 m²ko azalerarekin, instalazioak 156 kW sortuko ditu eta urteko faktura elektrikoan asko aurrezteko ahalbidetuko du. Izan ere, eguzki-plakek sortuko duten energia enpresa bazkideen gutxi gorabehera. Fakturatik deskontatuko zaie zuzenean eta ez dute ordainduko ez bidesaririk ez kargurik.

Proiektu eredugarria

Hori horrela, lurraldean energia-trantsizioa bultzatzeko konpromisoa indartu egiten dela nabarmendu dute: “Izan ere, abantaila ekonomikoekin batera, urtean 972 tona CO2 isurtzea saihestuko da, hau da, 25 urtean emisioak xurgatzen dituzten 3.891 zuhaitz landatzearen baliokidea”.



Etxebizitza Sindikatuak “Lanbideren kontrol burokratiko eta poliziala” gelditu nahi du

Deba Bailaran eratu berri den Etxebizitza Sindikatuak dinamika berria hasi du ‘Lanbideren kontrol burokratiko eta poliziala gelditu’ goiburuarekin. Sindikatuak dioenez, “Lanbideko polizia bidaltzen du RGI-a eskatu dutenen etxetara eta abenduaren 22an onartutako RGI-aren erreformak ez du hau aldatuko”. Erreformak laguntzen zenbatekoa handitzen duela aitortzen du sindikatuak, baina “autoritarismoan sakontzen” duela azpimarratzen du. “Lanbideko langilez osatutako inspektore talde espezializatua sortu da, irizpide burokratikoaren kontrola zorrotz da, ilegalak ziren mekanismoak onartzen dira eta zigorrak asko gogortu dira (laguntzak bost urte arte kentzeko aukera)”, dio Etxebizitza Sindikatuak.



Dohaintza berria jaso du udal liburutegiak

Eibarko Juan San Martin udal liburutegiak Casino Artista Eibarres-en dohaintza jaso du. Obra hauekin handitu egin da Liburutegiak erreserba-funtsean duen ondare bibliografikoaren bilduma. Obra horietatik, bederatzia XIX. mendeko bukaeran argitaratuta daude.

Josu Mendicute izango da EAJren alkategaia 2023ko udal hauteskundeetan

Eibarko Uri Batzarrak Josu Mendicute Rodríguez (Eibar, 1987) jeltzaleen zerrendaburu izendatu du eta, horrela, bera izango da EAJ-PNVren alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan, “Eibarko alkatetza berreskuratzea xede. Mendicute 2015ean sartu zen Eibarko Udalean, laugarren postuan, eta hilabete batzuk geroago bozerraile izendatu zuten. 2019ko hauteskundeetan aurkeztu zen lehen aldiz alkategai gisa. Bertan, buru zen hautagaitzak boto-emaileen kopurua %30 handitzea lortu

zuen, seigarren zinegotzia lortuz eta EAJ-PNVren proiektua sendotuz, aldaketa bultzatzeko alternatiba gisa”, azaldu dute Eibarko jeltzaleek.

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta bigarren hezkuntzan euskara-eskolak emateko irakasle gaitua, 20 urterekin hasi zen lanean, ikasten ari zela. Komunikazio digitalaren sektorean aritu da eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrean, 2019ko azaroan buru-belarri Udalean aritzeko laga zuen arte.

Ariketa fisikoak egiteko bost aparatu ipini dituzte Muzategiko parkean

Udalak makina bio-osasungarriak jarri ditu Muzategiko parkean, ariketak egiteko. Bost aparatu dira eta, makina-multzoa batez ere adineko pertsonentzat pentsatua ipini badute ere, edozeinek erabil ditzake. Ariketak egiteko makinaren instalazioan egindako inbertsioa 10.000 eurokoa izan da.





Merkatu Plaza zaharraren maketa erostea proposatu dio Udalari Errebal Bizirik-ek

Errebal Bizirik Elkartek Manuel Zabalak egindako Errebal Merkatu Plaza zaharraren maketa erosteko eskatu dio Udalari. Maketa hori Armagintzaren Museoan dago ikusgai egunotan. Gogora ekarri nahi dute nola orain dela 15 urte eraitsi zen “eraikin berezi hori presoek egin zuten, 36ko gerraren ondoren”. Errebal Bizirik-en esanetan, “maketaren egileak berak EITBn egindako adierazpenetan esandakoengatik badakigu enkarguak jasotzen di-

tuela, eta, beraz, dagoeneko egina duen maketa erosterik ez badago, beste bat egiteko eska dakioke”.

Asmoa maketa jendeak ikusteko moduan ipintzea da, gaur egungo Merkatu Plazan dagoen erakusleihoan, Museoako beste piezak dauden moduan. Horrela, herriaren historiaren parte izan den Merkatu Plaza zaharra nolakoa zen gogoratzeaz gain, “gaur egun lau postu oraindik betetzeke dituen Merkatu Plazarekin konparatzeko aukera izateko”.

Amaña eta Urkiko eskoletako jolastokiak arratsalde zabalduko dituzte, jolasteko

Amañako eta Arrateko Andra Mari ikastetxeetako patioak aste honetatik aurrera erabili ahal izango dira, eskolak amaitzen direnetik 20:00etara. Neurri horrekin, Udalak kirola egiteko espazio berriak jarri nahi ditu umeen eta gazteen esku.

Bi jolastoki horiek astelehenetik barixakura erabili ahal izango dira, eskola-ordutegia amaitzen denetik

20:00ak arte. Martxoaren 31tik apirilaren 17ra arte, Aste Santuko oporrekin batera, itxita egongo dira patioak, eta apirilaren 17tik aurrera irekiko dira berriz ekainaren 22ra arte. Oporrak igarota, irailean zabalduko dira atzera ere. Horrela, baloiarekin jolasean aritu nahi duten neska-mutilei horretarako aukera ematea da helburua, horren premia dagoela ikusi dutelako.



Itsasargia proposamenari buruzko eztabaida saioa antolatu du Gure Eskuk

Gure Eskuk Itsasargia proposamen politikoaren inguruan eztabaidatzeko saioa deitu du egunerako, 19:00etan, Arrate Kultur Elkartean. Diotenez, “helburu nagusia Gure Eskuren datozen urteetarako norabidea adostea da. Burujabetzarako bidean jauzi bat egiteko asmoz, herri dinamikaren tesi eta lan-ildo nagusiak zein antolaketaredua birpentsatzera goaz. Ez dugu eztabaida hutsetik abiatzen. Gure Eskuren balioak eta ia 10 urteko ibilbidea ditugu oinarri, eta Eskura prozesua (2015) aurrekari. Bidean ikasitakoak kontuan hartuta, etorkizunari begira, jarriko gara, herri dinamikatik harago iristeko bokazioarekin”.

Berrerabili eta Berrasmatu tailerretarako izen-ematea

Udaleko Ingurumen Sailak ‘Berrerabili eta Berrasmatu’ tailerren hirugarren edizioa jarriko du martxan martxoaren 4an. Hamar tailer egingo dira herriko denden eta erakundeen laguntzarekin, eta bertan parte hartzeko aurrematrikula egiteko epea zabalik dago dagoeneko. Dena dela, informazio gehiago jasotzeko ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 84 08 telefonora deitu daiteke.



Bertoko 130 zuhaitz landatuko dituzte domekan Lindarin

Zuhaitz Eguna dela eta, domekan bertako 130 zuhaitz edo zuhaixka landatuko dituzte Lindarin, Urko mendiaren magalean, Udalak zaintza-akordio baten bidez duen lur-sailean. Haritzak, urkiak, arteak, gorostiak, otsalizarrak, elorri zurriak, elorri beltzak eta astigarrak landatuko dituzte, besteak beste. Lindarira igoera taldean egingo da eta, horretarako, bi elkargune ezarri dituzte (09:30ean Klub Deportivoan eta 10:00etan Amañako eskola alboan). Zuhaitzen landaketa, bestetik, 10:30etik 13:00era bitartean egingo da.



Zaporeak erronka eskualdeko herri guztietara zabalduko da martxoan

Debarreneneko Zaporeak erronkaren aurkezpena egin zuten astelehenean Untzagako jubilatuetxean. Eibar eta Ermuko sukaldari batzuen eskutik abiatu zen ekimenak bosgarren urtea beteko du oraingoan eta aurten eskualdeko herri guztietara zabaldu dute. Aurrekoetan bezala, aurten ere lekaleak, pasta eta arroza bilduko dituzte Debarreneneko herri guztietan, martxoaren 20tik 24ra, Grezian dauden errefuxiatuei jaten emateko. Horrez gain, janaria bidaltzeko gastuei aurre egiteko,

errifak ipiniko dituzte salgai eta, oraingoan, afari bakoitzarekin batera, Eibarko Artisten Elkarteko kideek doan eman duten artelan bat eramango du irabazleak.

Bestalde, Zaporeak elkarteari laguntzeko bazkideak behar dira eta, asmo horrekin, kanpaina abiatu dutela ekarri nahi dute gogora. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute. Horri buruzko informazioa www.zaporeak.eus webgunean duzue.



Estaziño-Azитайn proiektuarekin ados ez daudela esateko gutunak alkatearentzat

Jon Iraola alkateak herritarren kexa eta proposamenak kontuan hartzeko prest dagoela esan duela eta, astelehenean Urkizun elkartu ziren Ez lurperatzen gaituen paseari-Ekialdea Bai Auzo Elkarteak, alkateak buzoietan banatu dituen orriak bete eta beraien kexak bidaltzeko: “Estaziño eta Azитайn arteko trenbidea estaltzeko proiektuarekin ados ez gaudela adierazi nahi dugu”. Alkateari bizi-

lagunekin harremanetan jartzeko moduak goitik behera aldatzea ere eskatzen diote, honako proposamena luzatzeaz gain: “Zintzo lan egiteko modu bat, entzuten ikasiz eta egia esanez, batzen gaituzten gauzak bilatuz”.

Gainera, Auzo Elkarteak zortzi eskaera erregistratu ditu alkate-tzan, otsailaren 11n, guztiak trenbideak estaltzeko obra honekin lotutakoak.



Anbulatorioko erizainak,
1959ko irailaren 25ean
egindako argazkian.
PLAZAOLA

Eibarko anbulatorioan medikuntzako espezialitate guztiak zeuden. Eskualdetik ere pazienteak hartzen zituzten otorrinoek, okulistek, zirujauak... Matilde praktikantea zen eta etxez-etxe eta anbulatorioko botikinean lan egiten zuen zauriak sendatzen, injekzioak jartzen, igeltsuak kentzen...

Eibarko anbulatorioan espezialitate guztiak zeuden

Matilde Isasi-Isasmendi Gallastegi (1933)



Ermuko "Ezkerraneko" tabernako alaba, baina Iurretan jaiotakoa 1933an. Gasteizen irakasle izateko ikasketak amaitu ostean, lan modura lar gustatu ez, eta aita Manuelen oniritziarekin emagin lanbidea ikasi zuen Basurton. Ermua, Mallabia, Zaldibar zein Berrizko ume askori mundura etortzen lagundutakoa da. 1978an Eibarko anbulatorioan jarri zen lanean, 19 urtez, Ermukoan jardun ostean 1952tik ordura arte. Erditzearen gaineko sasoi bateko sineskerak, tresneria ezak, gogoz kontrako haurdunaldiak, erditze ondorenak... ditu hizpide.

Matilde Isasi-Isasmendiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Hamen Eibarren eguan garai hartan, espezialidade guztiak Eibarren eguazen, anbulategian. Bueno, guztiak, gehixenak, ixa danak. Igual bateron bat faltauko zan, gero psikiatria etorri zan beranduago, baiña Eibarren eguazen danak. Otorrino, oftalmologia, traumatologia... danetik, danetik eguan. Ta, klaro, populaziñua etortzen zan Ermutik, uste dot Elgeta be, Elgeta dudia dakat, baiña Elgoibar, Elgoibar, eta Motrikotik be bai, Eibarrera etortzen ziran espezialisteñak. Oindiok Mendaroko ospitala egin barik eguan (...) Zirujanua be bai. Ta horrek in egiten eben erizaiñak lana, euren lana zan, zera, eurekin lan egitea. Ta horrek egiten eben lana anbulategian. Guk, praktikantiok, egiten genduan, izaten zana botikiña. Botikiña zan kurak, injekziñuak... ta horrek gauza guztiak, anbulategira juateko moduan eguazanak, eta bestiak izaten ziran etxera guk juan biharra eukitzen genduazanak.



Egoitza berritua du ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Hilabete luze egin ondoren, aurpegi berriztuarekin ireki ditu atepak ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Lanari ez diogu eten, baina astelehenetik aurrera normaltasunez dihardugu langileok egoitzan bertan eta hasi gara hartzen jendea. Udalaren laguntzarekin eta elkarteak berak egindako aportazioarekin (herritarren laguntzari esker eta gure zerbitzuen salmentari esker) egin ahal izan ditugu gaur egungo beharretara egokitzeko lanak.



Hurrengo Barixakuak Jolasian otsailaren 24an egingo da Urkizun

Asteburu honetan Aratosteak direla-eta, Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak, ikasturteko azkenak izango direnak, otsailaren 24an egingo dira Urkizuko parkean. Betiko bezala 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak egingo dira 17:00etan hasita 18:00ak arte. Egun horretakoekin amaituko dira ikasturteko jolasak auzoetan, baina ikasturtea amaitu aurretik antolatuko du ...eta kitto!-k beste ekimenik Gurasoak Berbetan programaren barruan.



Domekan ospatuko da aratosteetako Play Back lehiaketa Errebalen

Pandemiaren osteko normaltasunaren barruan egingo da aurtengo Play Back lehiaketa, estrainekoz Errebal Plazan. Inoizko parte-hartzerik altuena izango du gainera: LH 5. eta 6. mailetako 25 taldek eman dute izena. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera euskal kantu ezagunen doinupean euren dohainak erakutsiko dituzte gaztetxoek, eta giro aparta sortuko da agertokian. Hori dela-eta, ...eta kitto! Euskara Elkarteak dei egin nahi die eibartarrei Errebalera hurbil daitezen: “Lan handia egin dute neska-mutilek, entsegu-ordu asko egin dituzte eta ikuskizun zoragarria eskainiko dute”. Hiru sari banatuko dira, interpretazio, koreografia eta mozerro onenari, baina “parte-hartzaile guztiek jasoko dute oparitoxa”, diote elkartetik.

Barreterapia-saioan eman daiteke izena oraindik



Datorren martxoaren 2an, eguena, Manex Beristain barreterapeutak emango duen saioan izena emateko epeak zabalik dirau. Telefonoz (943200918) edo mezua bidalita (elkartea@etakitto.eus) eman daiteke izena eta 5 euro balio du (doan ...eta kitto!-ren bazkide eta berbalaguntzat). Saioa arratsaldeko 18:30etik 20:30era egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu 11 solairuartea).



Eibar neguan. OSKAR BAGLIETTO



FELIX MORQUECHO

Galdera eta zenbakiak, Turkia edo Ukraina?

Guk geuk egiten ez ditugun galderak, umeez egiten dizkigute noizean behin.

Orain dela egun gutxi Turkia eta Siria aldetik berri ikaragarria etorri zitzaigun. Naturak bere aurpegi latzena erakutsi du sekulako lurrikara baten bidez. Bizi dugun komunikazioaren garaian, berehala ikusi ditugu eraikinak okertuta, aurretik pisu askoko etxeak zirenak harri-mendi bihurtuta, negarrak, mina, beldurra...

Lehen lurrikararik bi edo hiru egunetara nire semeak galdera bota zidan: “Non egon dira hildako gehien, Turkiako sismoan edo Ukrainako gerran?”. Albiste guztien artean seguru zenbakiak atera direla alde batetik edo bestetik, baina ezin nion erantzun momentuan galdera horri. Ordu batzuetara goizeko galdera gogoratu nuen eta erantzunaren bila jarri nintzen. Momentu horretan 7.000 hildako aipatzen ziren Turkian eta Sirian, nahiz eta zenbakiak ez ziren behin betikoak (lerro hauek idaztean 30.000 inguru aipatzen ari dira komunikabideetan). Baina Ukrainako gerrako ondorioak begiratzean ezin nuen sinistu. Laster urtea beteko duen guda honetan 240.000 pertsona inguruk galdu dute bizia. Zenbaki horiek hildakoak erakusten dizkigute, agian errealitate gogor horien alderik latzena, baina ez dira horrelako egoerak pairatzen dituzten bakarrak. Hildako bakoitzaren atzetik haien familiak eta lagunak daude (onik ateratzea lortu badute), etxea atzean utzi behar izan dutenak, aurreko bizitza deuseztatuta ikusi dutenak... Bai naturaren fenomeno baten ondorioz, bai gerraren ondorioz.

Egun hauetan begiradak Turkia edo Siriako eraikinetan jarri dira, ea aproposak ziren materialak, ea etxeak eraiki behar ziren arrisku sismikoa duten leku horietan... Erantzunkizunak badaude, bai, baina kalte horien sorrera ez dago gizakien esku. Bestean... bestean bai, gizakiak gara gerra hasi, eutsi eta elikatzen dugunak, eta ikusi dugu horren ondorioak lurrikara ikaragarri bat txiki-txikia uzten duela, zenbakiak agerian.


“Baina Ukrainako gerrako ondorioak begiratzean ezin nuen sinistu. Laster urtea beteko duen guda honetan 240.000 pertsona inguruk galdu dute bizia”

Zazpi bizitza, baina duinak

Katubeltz elkarte 2016. urtean sortu zen eta askorentzat ikusezina den lana egin du urte hauetan. Elkarteko kideek 120 katu antzutu dituzte Eibarren eta, katuen gainpoblazioa ekiditeaz gain, animalia hauei bizitza duina ematen saiatzen dira, kalean jarraitu ezin dutenei etxea bilatzen saiatuz.

Katubeltz elkartearen jardunak simplea dirudi, baina demasekoa da atzetik duen lana. “Gure zeregin nagusia katuak harrapatzea, antzutzeta eta itzultzea da”, esan digute elkartetik. HAI sistema deritzo horri, hitz bakoitzaren lehen letra hartuta, eta Europako zenbait herrialdetan orain dela 20 urte jarri zuten martxan. Horretarako, katuen koloniak atzeman behar dituzte lehenik eta animalien zentsoa egiten dute ondoren. “Elikatzaileen laguntzarekin katuak harrapatzeko ditugu, antzutu, marka egiten diegu antzututa daudela jakiteko eta askatu egiten ditugu kolonia berean”, argitu digute.

Katu batzuk, oster, ez dira oso egoera onean egoten, gaixo egoten dira, eta eurentzat etxea bilatzen saiatzen dira. “Arazo handiena da dagoen katu kopurua etxe kopurua baino askoz ere handiagoa dela. Orduan, kopuru hori ez badugu pa-




rekatzen, ezin ditugu kaleko katu guztiak etxera eraman”, dioskue elkartetik.

Katuen zentsoa egiteko, kolonia korrelatiboen sistema erabiltzen du Katubeltzek. “2016an kolonia batean hasi ginen eta ia katu guztiak antzutu genituen. Gero, alboko koloniar joan ginen, gero albokora, ondoren hurrengora... Horrela, segurtasun-gune bat ezartzen duzu”, azaldu digute. Katuak harrapatzeko elikatzaileen laguntza behar dute, aurreko egunean katuei jaten ez ematen saiatzen dira eta bolondresen lana ezinbestekoa izaten da. “Eurak arduratzen dira katuak albatariarengana eramateaz eta koloniar itzultzeaz”, diote.

Bi auzo kontrolpean

Katubeltz herriaren aldeko lana egiten saiatzen da. “Katuak gustatzen ez zaizkien katu gutxiago ikusiko dituzte kalean, eta gustatzen zaizkigunok ere berdin. Gainera, ikusten



Katubeltz elkarteak erabiltzen duen sistema. KATUBELTZ

ditugunak egoera hobean ikusiko ditugu”, azaldu digute.

Euren ustez kalekatuek beti izan dute fama txarra. “Zikinak direla, gaixo daudela, arratoien atzetik dabiltzala, eta abar. Baina antzutzen baditugu, koloniak kontrolatuta badaude, pentsua jaten ematen badiegu... Katuek beste itxura bat dute, osasuntsuagoa”, diote.

Elkartea 2016ko irailean sortu bazen ere, 2017ko hasieran hasi ziren antzutzeekin. Katubeltzek Debarreneneko beste herrietan ere jarduten du eta guztira 206 antzutze egin ditu urte hauetan guztietan: 120 Eibarren, 32 Ermuan eta 53 Mendaron (azkena domeka gauean). “Eibarko bi auzo ia guztiz kontrolatuta ditugula esango genuke. Kolonia bat falta zaigu kontrolatzeko eta, gero, solte agertzen diren katuak”, azaldu digute. “Bi auzo horietan bizilagunen kexak egon ziren. Katakume asko zeudela, borrokak, autoek katuak harra-


>>> Katubeltz elkarteak 206 antzutze egin ditu urte hauetan guztietan: 120 Eibarren, 32 Ermua eta 53 Mendaron

>>> Katubeltz katuak harrapatzeaz, antzutzeaz eta kolonietara itzultzeaz arduratzen da batez ere

patzen zituztela... Orain, antzututa daudenez, ez dira borrokatzen, ez dira emeen atzetik korrika ibiltzen eta errepidea gurutzatzen eta, pentsua ematen zaienez, bizilagunei esaten diegu leihotik janaririk ez botatzeko, horrek dakarren zikin-keria ekidituz”.

Elkartekoek diotenez, Udala pozik dago euren lanarekin. “Auzo

bi horietan kexak asko jaitsi direla aitortu digute”, diotenez. “Sistema ondo eramaten bada, berehala ikusten dira onurak”. Sistema horri ‘1 antzutuz, 100 bizitza salbatu’ deitzen diote. “Izan ere, katu batek bere bizitza guztian 100 katakume izan ditzake, bere oinordekoak kontuan hartuta”, azaldu digute Katubeltzekoek.



Katubeltz elkarteari bat egin edo lagundu nahi badiezu, goiko irudian daukazue nola. KATUBELTZ

>>> Euskadin eta Espainian onartu diren lege berrien arabera, Udalak arduratu behar dira orain katuen kolonien kontrolaz

>>> Katubeltz elkartek 40 bazkide inguru ditu, baina bolondres gutxi hainbeste denbora eskatzen duen lana egiteko

Udalen ardura orain

Bolondresak osatzen dute Katubeltz eta Udalak ezin die eskatu han edo hemen aritzea, baina baliabideen arabera (“dirulaguntza txiki bat jasotzen dugu”) aktuazioak egin izan ditu elkartek. Abuztuan, ostera, 9/2022 legea onartu zen EAEn eta etxeko eta kaleko katuen parekatzen ditu, eskubide berdi-

nak emanez, kalekatuen koloniak babestuz eta kolonia horien kudeaketa Udalaren esku lagaz, elkartean laguntzarekin beti ere. “Beraz, orain gu gabiltza Udalarri laguntzen, ez alderantziz”, azpimarratzen dute Katubeltzekoek.

Joan den eguenean, bestetik, Animalien Babeserako Legea onartu zuten Espainian. “Euskadiko le-

gearen antzekoa izango dela pentsatzen dugu. Aste batzuk itxaron beharko dugu EAOn (BOE) argitaratu arte, baina pentsatzen dugu katuen kolonien kudeaketa Udalen esku dagoela zehaztuta duela”, elkartekoek ustez.

Erakundeen aldetik bultzakada egon beharko dela badirudi ere, Katubeltzentzat beharrezkoa da oraindik herritarren babesaren jasotzea. “40 bazkide inguru ditu elkartek eta oso bolondres gutxi gaude”, dioskue. “Gure denbora librean egiten dugun lana da, denbora asko jaten du eta dirua ere behar da. Jende gehiago balego, gutxi emanda ere, asko egin ahalko litzateke”, gehitzen dute.

Goiko irudian ikusi dezakezuen bezala, aukera ugari dago Katubeltz elkarteari laguntzeko eta, informazio gehiago behar izanez gero, bertan agertzen diren sare sozialen bitartez jarri zaitezke eurekin harremanetan.



Koko-jantziak prest? Jai giroa izango dugu herrian datozen egunotan.

Dantza, musika eta kolore alaiak Aratosteetaz gozatzeko

Joan den zapatuko koko-dantzek eman zieten hasiera Aratosteei eta, atzo Eguen Zuri ospatu ondoren, gaur, bihar eta martitzenean herria mozorrotuko dugu jaiaz gozaten jarraitzeko. Gainera, eguzkia izango dugu.

Kaldereroak izango dira gaurko protagonistak. Kalejira 20:00etan hasiko dute Urkizun, Untzagan amaitzeko. Gero, 20:30ean, Errebal Plazan. Aratosteetako pregoia egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta Kezka Dantza Taldearen eskutik.

Bihar Zapatu Erregularra izango da eta goizetik gauera egongo dira ekintzak. 12:30ean rock emanaldia egingo da herriko kaleetan zehar eta, ordu berean, koadrilen desfilea hasiko da, Ustekabe fanfarreak lagunduta.

Aratosteetako ekintza gehienak Errebal Plazan egingo dira. Amaña Es La Cañak, bestetik, egitaraua prestatu du auzorako

Arratsaldean, 18:00etan, kokojantzi lehiaketa egingo da Galiziar Etxean; 19:00etatik 21:00etara, umeentzako berbena izango da Errebalen (eguneko ekintza guztiak bezala), Luhartz taldearekin; 19:30ean, koadrilen desfilearen, kartel-lehiaketaren eta ondoen apaindutako tabernen sariak emango dira; 19:00etatik 21:00etara, photocallsaioa izango da; 19:00etan, kaleko animazioa, Rock Brass Band taldearekin; eta 23:00etatik 01:00etara, dantzaldia, Luhartz taldearekin.

Aratoste Domekan kalejira egingo da 11:00etan, Usartza txistulari-bandarekin. Arratsaldean, 17:00etan, LHko 5. eta 6. mailetako ikasleentzako playback-lehiaketa izango da, ... eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta, eta 18:30ean Arno DJ-a arituko da Errebal Plazan.

Aratoste Martitzenean umeentzako jolasak egingo dira 17:00etatik 18:30era Errebalen; sardina 'txikiaren' hileta, Jainagaren trikitilari-taldearekin lagunduta (18:30ean hasiko da); eta umeentzako diskoteka, Errebalen, Arima Cool Tourrekin, 19:00etan.

Aratosteak Amañan

Amaña Es La Caña elkarteak egitarau berezia prestatu du auzorarentzat. Horrela, gaur, 17:00etan haurrentzako clown-ikuskizuna eskainiko du Lekimek, 18:00etan umeentzako txokolatada egongo da eta 19:00etan *musi-poteoa* egingo da auzotik (mozorrotuta). Bihar, 16:00etan, umeentzako joku eta eskulanak egongo dira, 17:00etan txotxongilo-ikuskizuna, 18:00etan umeentzako txokolatada, eta 19:00etan DJ emanaldia eta argazki-lehiaketa. Domekan, azkenik, 10:00etan salda eta txorizoa banatuko dira eta 12:00etan *musi-poteoa* egingo da.

ARATOSTIETAKO



GIRORIK ONENA!!!



EIBARKO ZURE GUSTOKO TABERNETAN



Koko-marruak herriko baserrietan zehar ibili ziren aurreko zapatuan

Kezka Dantza Taldearen eskutik koko-dantzari eta koko-marru konpartsa ibili zen zapatuan Eibarren. Goizeko lehen agerraldia Errebal Plazan egin eta, jarraian, Gorosta eta Mandiola auzoetako baserrietara joan ziren koko-eskean.

Arratsaldean, berriz, Eibarko kaleetan egin zuten kalejira, Mautitxa txarangarekin batera.

Eguna hotz hasi bazuten ere, berahala berotu ziren eta, gero, eguzkia lagun, giro ederrean ibili ziren, gora eta behera, dantzan jo eta su, Eibarko aratosteei hasiera ematen dion egunaz gozatzen.

ARGAZKIAK: FELIPE LOIOLA



“Emakumeok kontatutako lanak literatura sistemaren erdigunera iritsi dira azken urteotan”

MIREN AGUR MEABE • Idazlea



Harixa Emoten euskarazko irakurketa-klubak Miren Agur Meabe idazlea (Lekeitio, 1962) hartu zuen joan den asteko saioan. “Begiak zerumugan” 2020an argitaratu zuen poema-liburuaren inguruan jardun zuen idazle bizkaitarrak irakurketa-taldeko kideekin batera. Saioaren aurretik berarekin egoteko tartetxoak izan genuen, eta liburu horren gainean ez eze, eskuartean darabilkien proiektuez eta beste hamaika gauzez ere jardun genuen.

Ezagun du Miren Agurrek Harixa Emoten, ez baita irakurketa-taldera datorren lehen aldia. Horrelakoak, idazlearentzat, indargarriak direla dio lekeitiarrak.

Zer da zuretzat zerumugari begiratzea?

Zerumugari begiratzeko nire modua idaztea da, eta idaztea, nolabait, ibiltzea, esploratzea eta norabait iristea da. Idazteagatik ez zaigu ortzimuga hurreratzten, ezta urruntzen ere, baina laguntzen digu non gauden jakiten.

Liburuaren oinarrian azkeneko urteotako materiala bildu duzu. 200 poema inguru pilatu eta aukeraketa egin behar izan duzu. Nolakoa edo zeren arabera aukeraketa izan da?

Hautaketa bat egin nuen hurrenkera zentzuzkoa izateko moduan. Eta testu berriak ere gehitu nituen, bidaia emozionalaren ildoaz azpimarratzeko: lagun maite baten heriotza, dolua eta neure berreraikuntza pertsonala daude liburuaren barne-geruzan.

Esan izan duzu liburua ez dela bilduma soil bat. Nola antolatu duzu? Zein da haria?

68 poema bildu nituen, lau ataletan banatuta, eta hari argumental sotil baten arabera ordenatu nituen: ibiltari baten ahotsa, lehen pertsona, bidearen berri





"Euskal idazle on erronka da euskararen kalitatea zaintzea eta literatur hizkeraren aniztasunean sakontzen jarraitzea"

ematen. Ibilbidearen hasieran Haize-arrosaren mezua jaso du, abiatzeko. Kontrazalean esaten denez, "zerumugari begiratzea abiatzeko bultzada izan daiteke". Amaieran, logikoa denez, Bidaiaren laburpena egingo du. Lau bidaldi edo etapa egingo ditu, liburuarekin batera datorren irudi hegadarrian ikusten den bezala.

Baina ez daude poemak bakarrik?

Poemekin batera aforismo multzo bat dago, esaldi laburrak, esperientziatik ikasitako printzipio bat, arau bat edo argibide bat modu zehatzean emateko ahalegina. Lotura daukate poemek igortzen duten mezuarekin edota atmosferarekin, baina beregainak dira, autonomoak. Mapa txikiak deitu diet. Mapek zertarako balio dute? Kasu honetan Lur planetari buruz aplikatu beharrean, orberaren baitako geografia markatzen dute. Batzuetan agerian daude, eta beste batzuetan ez, normala denez... Denetariakoak dira, gauza konkretuei buruz: itsasargia, errautsa, izarrak...

nahiz kontzeptu abstraktuei buruz: adorea, zoria, askatasuna...

Zeini zuzenduta dago, zein irakurle-motari eta zein adinetako irakurleari?

Adin guztietarako poesia dela esango nuke, irakurketa maila desberdinak dituelako. Gaztetxoek, hamaikahamabi urtetik aurrera, agian modu jostagarrian interpretatuko dituzte testuak; helduek, ordea, euren esperientziaren argitik.

Zein da poesia mota horren ezaugarria, publiko guztietara heltzeko?

Poesia gardena da, irudian oso oinarritua, hoskide-tasuna eta musikalitatea makulu dituena, eta herri-formen oihartzunak ere badituena. Ozen nahiz zurrumurruka esan daiteke, kasu batzuetan lelo edo abestitxo gisa ere bai. Izan ere, emanaldi musikatu bat ere egiten dugu Dana Moya kantari kubatar-euskaldunak eta biok, obra hau ardatz hartuta.

Ane Pikaza ilustratzailea arduratu da liburuko irudiak sortzeaz. Zer nolako elkarlana izan da zuena?

Ane Pikaza bidaia honetan zehar lagun izan nuen, baina berak bere bidaia propioa egin du. Interpretazio pertsonal aberatsa egin du, sormen-lan ia onirikoa, iradokiorra, dotorea, meritu handikoa. Miresgarria da zelan bihur daitekeen paper mordo bat honelako lan ederra, batez ere kontuan izanik pandemiaren garaian mamitu zuela, etxezuloan sartuta. Egoera bitxi horrek lagundu omen zion bilakaeraren ideia lantzen.

Zein dira zure hurrengo egitasmoak?

Oraintxe prestatzen ari gara Begiak zerumugan-en gaztelaniazko edizioa, Horizonte. Salamankako Ló-guez etxeak kaleratuko du udazkenean. Ohi bezala, neuk itzuli dut, ariketa formal interesgarria iruditzen zaidalako. Gainera, libre sentitzen naiz literaltasunetik pixka bat aldentzeko ere. Beste alde batetik, gazteentzako nobela bat amaitu dut, XXI. mendearen eta XVI. mendearen arteko saltoak egiten dituena. Eta Katta urtxintxaren bildumako beste lau ale. Esker oneko lana da hori: errimak, hitz-jokoak, esaera zaharrak, igarkizunak eta abar sartzen ditut umeei hitzaren unibertsoa estimatzen laguntzarren, eta benetako poza ematen dit euren harrerak.



Eta itzulpenen bat badarabilzu esku artean?

Helen Vignal idazle frantziarraren nobela bat itzulpen dihardut, oso interesgarria, gazte baten kontaketa sexualitatearen aurkikuntzaz.

2021eko Espainiako Sari Nazionala irabazi zenuen “Nola gorde errautsa kolkoan” poesia-liburuagatik. Zer ekarri dizu sari horrek? Eta zer ekarri dio euskarari, euskal kulturari?

Sariak ikusgarritasuna eman zion nire lanari, duda barik. Lau hilabetetan lau edizio egin ziren gaztelaniaz eta hainbat aurkezpen egin ditut han-hemen. Pozik eta harro sentitu izan naiz euskaraz idatzitako obra baten bitartez puska batean arreta erakarri genuelako euskerarekiko. Guk bagenekien lehendik ere, baina munduan gure tokia aldarrikatu behar dugu, Etxepare zaharraren leloari jarraituz. Dena den, ederrena jendearengandik jaso dudana estimazio orokorra izan da. **Zein egoeratan dago gaur egun euskara sormen-mailan? Eta gizarte-mailan?**

Uste dut aniztasuna dagoela eta oso liburu sakonak argitaratzen direla, eta forma aldetik bikainak hailetako asko. Aurrera egin dugu kantitatez eta kalitatez. Gazteak oso prestatuta datoz: eskura daukate guk izan ez genuen alfabetizazioa, literatur ereduak, material ideologikoa, unibertsitate-ikerketak espezifikoak... Bestalde, aldaketa garrantzitsu bat gertatu da azken

“Espainiako Sari Nazionalak ekarri didan ederrena jendearengandik jaso dudana estimazio orokorra izan da”

urteotan: emakumeek kontatutako lanak literatur sistemaren erdigunerara iritsi direla.

Zein erronka ditu euskarak, zeintzuk ditugu euskaldunok?

Erabilera da euskaldunok dugun erronka nagusia. Eta euskal idazleena, euskararen kalitatea zaintzea eta literatur hizkeraren aniztasunean sakontzen jarraitzea. **Irakurketa-klubetan diharduzu, Eibarren ere hainbat aldiz izan zara. Irakurleok badakigu zein aberasgarriak diren horrelako saioak, baina, zuek, idazleek, nola hartzen dituzue saiook?**

Irakurleekin egiten diren saioak beti izaten dira onuragarriak. Edozein libururen sorkuntza-prozesuan izaten dira hainbat gertaera, eragin eta abar liburuan zuzenean agertu ez, baina nolabait zipriztindu dutenak. Alde horretatik, zuzeneko topaldiek aukera ematen dute hori argitzeko eta, kontrako noranzkoan, irakurleen iritzien berri izateko. Niretzat indargarriak izaten dira normalean.

Ipuruako gimnasta gazteenek bikain hasi dute denboraldia

Eskola eta amateur mailakoek arrera hartu diete estatu mailako federatuei eta dagoeneko otsaileko lehen bi asteburuetan Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena lortzeko I. fasea burutu zuten. Bergaran jokatu zen amateur mailakoan, Ipuruako jubenil A taldea lehen postuan sailkatu zen eta kadete B mailan Ipuruakoak lehen eta hirugarren postuetan geratu ziren. Bakarkako lehiaketei dagokienez, Uxue

Etxeberria onena izan zen seniorretan, Maria Horcajo bigarren izan zen jubenil B mailan, June Txurruka eta Lia Romano hirugarrenak jubenil A kadete B mailetan, hurrenez hurren, eta Itxaiz eta Yuma Otalvaro laugarren, bata jubenil B mailan eta bestea kadete A mailan. Bigarren fasea Ibarran jokatu da martxoaren 18an eta eibartarrak lehen hamarren artean sailkatu beharko dira finalera iristeko.

Eta Donostian jokatuako eskola mailakoan Ipuruak bost talde alebin eta infantil bi aurkeztu zituen. Alebinetako A kategorian La Salle Isasik eta Iturburuk lehenengo bi postuak bereganatu zituzten, C kategorian San Andres bigarren geratu zen eta B kategorian Iturburu hirugarren izan zen. Otsailaren 5ean, bestalde, Eibar eta Ermuko lau taldek hartu zuten parte benjamin topaketetan. Hilaren 25ean Ermuko I. Torneoa izango da jokoan eta Ipuruak antolaketa lanetan laguntzen diharduen lehiaketa horretan 50 taldek hartuko dute parte. Azkenik, federatuen arloan aurten senior talde berri bat osatu da maila absolutuan eta baita oinarriko jubenila ere. Martxoan sailkapen liga hasiko dute Espainiako txapelketei begira.



Hilaren 25erako sagardotegira irteera Deporreko mendikoen eskutik

Elgoibarko Morkaiko mendizale elkartekoekin batera antolatutako hurrengo irteera oso aproposa izango da mendiaz gozatu nahi dutenentzat, urtero egiten duten bezala sagardotegi batera joango dira eta. Antolatzaileek diotenez, ibilbidea ere polita eta erraza izango da, “gero ospakizun handiarekin amaitzeko”. Iturraran parketxetik irten eta, Aiatik eta Murugildik pasatuta, Zarautzen amaituko dute, 14 kilometro eta erdi egin ondoren. Goraka metatutako desnibela 775 metrokoa da; behearako 975 metrokoa. Autobusa goizeko 08:00etan aterako da Ego Gainetik eta Itziarko Txindurri Itu-



Aurreko zapatuko irteeran parte hartu zutenetako batzuk Leizuhan gainean.

rri sagardotegian bazkalduko dute. Menuan txistorra, bakailao-tortilla, bakailaoa piperrekin, sahieskia, txuleta, Idiazabal gazta membrillo eta intxaurrekin, ogia, ura eta sagardoa sartzen dira. Prezioa 53 eurokoa da bazkideentzat, eta 63koa bazkide ez direnentzat (hor sartzen da autobusa, bazkaria eta dutxa Zarauzko kiroldegian).

Herri Txikiak irteera

Aurreko zapatuan, bestalde, Deporreko 35 mendizalek Zubietatik Leitzarako ibilbidea osatu zuten, modu horretan Herri Txikiak irteeretako hirugarren etapa osatuz. Eguraldi hotzari eguzkiak bere kontrapuntua ezarri zion eta ondo baino hobeto gozatu zuten Plazaolako hiru tuneletik pasatu zen ibilbidean.

Pello Osorok Neguko Triatloiko Espainiako txapela berretsi zuen Ansoko proban

Anson aurreko asteburuan jokatu-tako XXII. Neguko Triatloiko Espainiako Txapelketan eibartarrak iaz lortutako txapela berretsi zuen, emakumezkoetan Enara Oronozek egin zuen bezala. Pello Osorok ordubete, 43 minutu eta 4 segundo behar izan zituen Mayencos Klub Piriniarrak eta Triatloiko Aragoiko Federazioak prestatutako ibilbidea osatzeko. Peñota Dental taldeko or-

dezkarriak minutua eta 21 segundo atera zizkion Stadium Casablanca Mapeiko Fernando Zorrillari eta bost minutu Saltoki Trikideak-eko Mikel Ibergallarturi. Urte hasieratik Lanzaroten dago eibartarra entrenamenduak egiten eta, Kanariar Uharteetako giroa Pirinioetakoaren ondoan oso ezberdina bada ere, Osorok goi-mailako atleta dela erakutsi du berriz ere.



Eibar Igerixaneko Paula Calvo estatuko Lurralde mailako txapelketan

Eibar Igerixaneko ordezkaria, Euskal Federazioa ordezkatzuz, Espainiako Lurraldeetako XI. Haur eta Junior Txapelketan izan zen. Torreviejako igerilekuetan jokatu-tako txapelketa horretako hiru probetan hartu zuen parte: bizkar erako 100 eta 200 metrokoetan lehiatu eta gero, erreleboetan ere saiatu zen Calvo: 4x200 eta 4x100 libreetan eta 4x100 estiloetan.



Deporreko atletek hiru domina bereganatu zituzten 20 urtez azpikoen Gipuzkoakoan

Aurreko asteburuan Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldekoak hiru txapelketatan izan ziren: Durangon Neguko Euskadiko Jaurtiketa Luzetakoa jokatu zen, Donostian 18 eta 20 urtez azpikoen Gipuzkoako Pista Estaliko eta Legazpin eskola arteko Gipuzkoako Krosekoa. Durangon lesioak direla eta bi urtez lehiaketetan parte hartu gabe zeuden Garoa Magunazelaia eta Mikel Martinezek hartu zuten parte, biek ere lan bikaina egiteko jabalina jaurtiketako saioan: Magunazelaia brontzezkoa irabazi zuen bitartean, Martinez seigarren

sailkatu zen. Gipuzkoako Pista Estalikoan hiru izan ziren lortutako dominak, hirurak 20 urtez azpikoen mailan: Manex Sarasuak urrezkoa lortu zuen jauzi hirukoitzean (11.69 metro), Kepa Marquez bigarren sailkatu zen pisu jaurtiketan eta Leire Martinezek brontzea bereganatu zuen. 18 urtez azpiko kategorian, bestalde, beste zortzi kirolarik hartu zuten parte Depor ordezkaten. Kroseko Gipuzkoako Txapelketan, azkenik, Marko Malaga eta Ander Azurmendi izan ziren denboraldiari amaiera eman ziotenak aire librekoarekin hasi aurretik.



Garoa Magunazelaia, lehiaketa irabazi zuen eta Espainiako txapelduna den Arantxa Moreno ermuarra alboan duela.



Hilaren 24an, barixakua, Yerma antzezlan eskainiko dute. LA DRAMATICA ERRANTE

Euskarazko hiru antzezlan Antzerki Jardunaldiei hasiera emateko

Hasi dira 46. Antzerki Jardunaldiak. Pepon Nieto eta Maria Adanez aktoreek eskainitako solasaldiarekin eman zitzaion hasiera egitarauari eta aktore biak protagonista diren '¡Ay Carmela!' egon da ikusgai egunotan. Datorren astean, oster, euskarazko antzezlanak izango dira nagusi.

Euskarazko hiru emanaldi izango ditugu ikusgai datorren astean. Lehenengo saioa Vaiven antzerki-taldeak eskainiko du, hilaren 22an, eguaztenean, 19:00etan, Hezkuntza Esparruan.

'Familia sarekada' antzezlan eskainiko du Vaivenek, "inorekin ez fidatzeko komedia", diotenez. Aurpegi ezagunak izango dira taula gainean; hala nola, Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Xanti Korkostegi eta guretzat are ezagunagoa den Nerea Gorriti eibartarra. Gainera, Aitziber

**'Familia sarekada',
'Yerma' eta
'Arrainak bihotzean'
euskarazko
antzezlanak egongo
dira ikusgai egunotan**

Garmendiak parte-hartze birtuala du antzezlanean.

Ikuskizun horretan, familia batek, etxean lasai afaltzen ari denean, Informatika Delituen Unitatearen (IDU) sarekada jasango du haietako bat etxeko porno-sare baten burua delakoan. Hortik abiatuta, umorez landuko dute errealitatekin hain urrun egon ez daitekeen gai distopiko hori.

Yerma, Lorcarik gabe

Euskarazko bigarren emanaldia hilaren 24an izango da, 19:00etan, Coliseo antzokian. Bizkaiko La Dramatica Errante konpainiak 'Yerma' antzezlan eskainiko du, Maria Goiricelayak zuzenduta. Federico Garcia Lorcaren lana du oinarri, baina Lorcaren hitzak erabili gabe lantzen dute. "Yermahonek gauregun seme-alabak izateko ezintasunari aurre egin behar dioten emakume guztien hitzak biltzen ditu. Asko direlako, nahiz eta inork ez hitz egin haietaz", diote konpainiakoe.

Ane Pikaza, Aitor Borobia, Loli Astoreka, Leire Orbe eta Unai Izquierdo dira aktoreak.

Itsas hondoan bidaia

Hirugarren emanaldia Mar-Mar teatro konpainiaren 'Arrainak bihotzean' izango da. Hurrengo zapatuan emango dute, otsailaren 25ean, 17:00etan, Coliseo antzokian, eta eibartar bat izango dugu antzezleen artean: Irene Hernando. Berarekin batera arituko dira Aritza Rodriguez eta Maitane Serrano.

Antzezlanak Martiren istorioa kontatzen du. Berak ez daki beldurak non bizi diren. Beraz, lasai bizi da kresal usaina duen herri batean. Aita marinela du eta portuan, haren zain dagoen bitartean, ekaitz batek uretara jaurtitzen du. Orduan, nahitaezko bidaia hasiko du itsas hondoan zehar.

NEREA GORRITI • Aktorea

“Entretenitzeaz gain pentsarazten duen obra da”

‘Familia sarekada’ antzezlanean Nerea Gorriti aktore eibartarrak hartuko du parte. Gorritik hainbat antzezlan, telebista saio eta ikus-entzunezkotan hartu parte azken urteotan eta, gainera, musika arloan ere bidea egin du. Artista borobila dela erakutsi du eta orain herrikideen aurrean aritzen ikusteko aukera izango dugu.



‘Familia sarekada’ antzezlaren irudia. VAIVEN

Anderren azalean jartzen zara. Nolakoa da bera?

Inspektore burua da Ander. Oso erronka polita izan da pertsonaia hau lantzea, baina, ‘spoilerrik’ egin nahi ez dudanez, nolakoa den jakiteko hoberena antzokira hurbiltzea izango da.

Berak, Anderrek, sarekada egiten du familia batek lasai afaltzen duen bitartean. Zergatik?

Ustezko delitu bat ikertzeko. Honek familiako kideen sekretuak agerian utziko ditu, oso egoera dibertigarriak sortuz.

Ziberespazioa, algoritmoak... Gai distopikoa lantzen duzue, baina era berean, gertatu daitekeena. Umoreak horrelako gai delikatuak lantzen laguntzen du?

Gaur egungo gaietaz hitz egiten du antzezlari honek. Oso momentu komikoak ditu, eszenatokitik entzuten ditugu publikoaren algara eta barreak, baina era berean gauza askotaz hausnartzen da, eta nire ustez hor dago gakoa. Entretenitzeaz gain pentsarazti egiten duen obra dela.

Gaztelerez eta euskaraz arituko zarete Eibarren. Berdin jokatzeko duzue bi bertsioetan?

Gaztelerez Ana Pimentak egiten du amaren pertsonaia, eta euskaraz Ainhoa Ayerbek, biak izugarritzko aktoreak. Baina, bestela, berdina berdina jokatzeko dugu bi hizkuntzetan.

Antzezlari horrez gain, ‘Yo, la peor del mundo’ musikalarekin zabilta, musika arloan zenbait proiektutan... Momentu gozoa ari zara bizitzen?

Oso pozik nago, bai. Antzerkian, biran nabil hainbat antzezlarekin eta oso harrera ona izaten ari dira. Eta musikan, X5 Kolektiboa taldearekin “Abestiak gogoan” diskoa kaleratu dugu eta laster kontzertuak ematen hasiko gara. Bestetik, azaroan “Sunday morning” nire lehenengo single-a aurkeztu nuen eta laster abesti berriak aterako ditut. Jendearekin partekatuzko irrikitan nago.

Oraingoan Eibarren antzezteko tokatzen zaizu. Zer da zuretzat etxean aritzea?

Etxean antzezteko berezia da eta ilusio handiz bizitzen ditut beti Antzerki Jardunaldiak. Oso pozgarria da horrelako jaialdi bat herrian bertan izatea eta kulturaz eta antzerkiaz gozatzea.



Eguen Zuri Aratosteetako argazki-lehiaketa martxan

Arrate Kultur Elkarteak XXV. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du, “besteak beste, Aratoste edo Karnabaletako oroitzapen fisikoa gera dadin”. Lehiaketa parte hartu nahi duen edozeinentzat irekia da eta Aratosteekin lotutako argazkiekin parte hartu daiteke. Argazkiek ez dute zertan Eibarko Aratosteetakoak edo Eguen Zurikoak izan, eta zuri-beltzean nahiz koloretan aurkez daitezke. Egile bakoitzeko gehienez hiru argazki onartuko dituzte eta irudiak JPG formatuan egon beharko dira. Fitxategi bakoitzak ezin ditu 6 Megatik gora izan eta edizio lanean askatasun osoa dago. Bai argazki-bidalketa, bai izen-ematea era digitalean egingo dira, eguenzuri2023@gmail.com posta helbidetan. Argazkiak bidaltzeko azken eguna martxoaren 12a, domeka eguerdian izango da.

Jasotako argazki guztien artean, epaimahaiak 20 aukeratuko ditu, eta horien artean hiru sari emango dituzte: argazki onenari, 160 euroko saria; bigarrenari, 100 euroko saria; eta hirugarrenari, 60 euroko saria. Sarien banaketa Topalekuan antolatuko den erakusketaren irekierarekin batera egingo da, martxoaren 24an, barixakua, arratsaldeko 19:00etan.



UEU-ren udaberriko ikastaroetarako izen-ematea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) udaberriko ikastaroen berri eman du eta horietako batzuk Markeskuan eskainiko ditu. Izena emateko epea irekita dago eta ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza UEU-ren web orrian aurkituko duzue. Hauek dira ikastaroak: “Haur eta gazteen kontrako sexu erasoaren kasuen aurreko jarduketa”, “Hizkuntza nahasmendua (TDL) Haur eta Lehen Hezkuntzan”, “Programazioa denontzat: Python ikasi praktikaren bidez”, “Euskararen erabilera indartzea Lehen Hezkuntzan: ikasleen euskararen erabilera eta hizkuntza-ohiturak lantzeko tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako”, “Zirkua heziketa-tresna gisa” eta “Eskola arreta adimen gaitasun handiko ikasleei”.



KZguneko martxoko ikastaroen eskaintza prest

Eibarko KZguneko martxorako eskaintza prest dago eta ikastaroetan izena eman daiteke, bertara joanda (hitzorduarekin), telefonoz (943 02 36 37) edo web orrian (www.kzgunea.eus). KZgunea Portalea kultur etxean dago eta astelehenetik barixakura zabalitzen dute, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara.



“Basauriko 11k” auziari buruzko bideo-forum saioa

Astelehenean Emakumeen Istorioak zikloko saio berri bat egingo da, 18:30ean Portaleko areto nagusian, Pagatxa emakume elkarteak Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean antolatuta. Patricia Perex Cotok dinamizatuko duen saioan “Basauriko 11k” ekarriko dituzte gogora. Orain dela 40 urte abortuaren legea bultzatu zuen kasu historikoari buruz arituko dira: “Izan ere, Auzitegi Gorenak bertan behera utzi zuen ‘Basauriko 11k’, mugimendu feministak aukeratutako izena, absolbitu zuen epaia, Espainian legez kanpoko abortua egitera behartuta zeuden emakume guztiei aurpegia jartzeko, beren bizitzak arriskuan jarritz”.



Guraso Eskola izeneko interesgunea liburutegian

Gurasoei euren seme-alaben hezkuntza prozesuan laguntzeko gune berria zabaldu dute liburutegian. Gai horrekin lotutako informazioa emateko eta familiekin lankidetzan aritzeko, Guraso Eskola deitu dioten interesgune bat jarri dute haur liburutegian. Liburutegiko hainbat gunetan sakabanatuta zeuden liburuak bildu dituzte bertan, eta puntu horretan jarri dituzte errazago aurkitzeko moduan.



Bi argazkilariren lanak erakutsiko dituzte otsailean

Hilabete osoan, otsailaren 28ra arte, egongo dira zabalik bi argazki-erakusketa tabernetan, Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik: Deportivo tabernan Fernando Alonsoren “Cuba, eguneroan murgiltzen” izeneko ikus daiteke, eta Portalea tabernan, berriz, Irene del Pinoren argazkiak ipini dituzte ikusteko moduan.

Atzerritarrei zuzendutako prestakuntza-tailerrak

Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saileko Immigrazio eta Kultur Aniztasun Unitateak atzerritarrei zuzendutako gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-tailerrak eskainiko ditu martxoaren 13an (Ziurtagiri digitalak), 20an (Atzerritartasun prozedurak) eta 27an (Nazionalitate prozedurak), KZ Gunean, 18:00etatik 20:00etara, SOS Arrazakeria Gipuzkoaren eskutik. Izena emateko epea martxoaren 5era arte egongo da zabalik.

Akebairen batzar nagusirako deia



Otsailaren 28an, martitzena, egingo du batzar nagusia Akebaik, 18:30ean Errebal Plaza eraikineko bilera gela. Bertara azaltzen diren akekideei orain arte egindakoaren berri emango diete, eta lortutako emaitzak eta gaur egungo egoera ere azalduko dituzte. Esandakoari jarraituz, “emaitza horiek kezka ere sortzen digute, eta zurekin partekatu nahi ditugu. Garrantzitsua da denok egoeraren berri izatea eta aurrera egiteko ideiak eta ekarpenak jasotzea”.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

2		6	7					
8	3					5		
	7				5		8	2
4								3
		5	3		8	9		
1								8
3	6		1				4	
		2					3	9
				3	1		7	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

S U D O K U


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

3	7			4				5	
6		8	5					3	
	4				7				
							1	5	8
8	2	3							
			2					7	
7					9	3		4	
5			4			6		1	

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

L A B I R I N T O A



BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO ARIKETA

ZAINTZAILE GEZURTIA ETA EGIATIA

Gela batean zaudete. Bi ate dituzte, bakoitza zaintzaile batekin. Ate batek askatasunera eramango zaitu, besteak hiltzera. Ez dakizue zein den zein. Zaintzaile batek beti dio egia, besteak beti gezurra. Ez dakizue zein den egiatia, zein gezurtia.

Eta aiteetako bat aukeratu behar duzue eta zabaldu, baina galdera bakarria egin diezaiokete euretako bati.

Zer galdetuko zenioke, eta zeini, askatasuna emango dizun atea zein den jakiteko?

Erantzun zuzena emanez gero, galdetako bati erantzun zuzena emango dizun atea zein den jakiteko. Erantzun zuzena emanez gero, galdetako bati erantzun zuzena emango dizun atea zein den jakiteko.

Otsailak 17 / 23

BARIXAKUA 17

ARATOSTEAK AMAÑAN

17:00 Haurrentzako "Clowd" (Lekim Animazioak).
18:00 Umeentzako txokolate-jana.
19:00 Musi-poteoa, mozorrotuta, auzotik. Amaña es la Caña-k antolatuta.

UNIENCOUNTER

18:30 Inaugurazioa, Elesky pianojolearen doako kontzertuarekin.
19:30 Alex Robleñok Korean filmatutako "El corazón de los esports" dokumentala. Uniko antzokia.



BARIXAKU ERREGULARRA

20:00 Kaldereroen kalejira. Urkizutik Untzagara.
20:30 Aratosteetako pregoia. Errebal Plaza.

ZAPATUA 18

UNIENCOUNTER

10:00 Hitzaldiak: "Ciberseguridad para pymes" eta "De la Uni Eibar-Ermua a Google".
11:30 Tailerra: "Inteligencia artificial generativa con Stable Diffusion".
16:00 K-POP lehiaketa. Uni.

ARATOSTE ZAPATUA

12:30 Rockalean. Eibarko kaleetatik. Aratosteetako koadrilen kalejira, Ustekabe fanfarrearekin. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria, Untzaga.
12:30/14:30 Photocall-a. Untzagako plaza.
18:00 Mozorro lehiaketa. Galiziako Etxea.
19:00 Rock Brass Band taldearen animazio musikala. Eibarko kaleetatik.
19:00/21:00 Umeendako berbena, Luhartz taldearekin. Errebal Plaza.
19:00/21:00 Photocall-a. Errebal Plaza.
19:30 Aratosteetako koadrilen kalejira, taberna eta kartel lehiaketen sari banaketa. Errebal Plaza.
23:00/01:00 Dantzaldia, Luhartz taldearen eskutik. Errebal Plaza.

ARATOSTEAK AMAÑAN

16:00 Umeentzako jolas eta eskulanak (Ekilore akademia).
17:00 Txotxongiloak (Bihar taldea).
18:00 Umeentzat txokolate-jana.
19:00 DJ-aren emanaldia. Amaña es la Caña Aratosteetako argazki lehiaketa. Amaña es la Caña-k antolatuta.

DOMEKA 19

ZUHAITZ EGUNA

09:30 Topagunea. Eibarko Klub Deportiboa.
10:00 2. topagunea. Amañako ikastetxea.
10:30/13:00 Zuhaitzak landatzea. Lindari (Urko mendiaren magala).

ARATOSTEAK AMAÑAN

10:00 Salda eta txorizoa.
12:00 Musi-poteoa, auzotik. Amaña es la Caña-k antolatuta.

ARATOSTE DOMEKA

11:00 Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.
17:00 Umeendako Playback lehiaketa. Errebal Plaza.
18:30 DJ Arno. Errebal Plaza.

ASTELEHENA 20

BIDEO-FORUMA

17:00/18:30 Emakumeen Istorioak: "Las 11 de Basauri". Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

MARTITZENA 21

ARATOSTE MARTITZENA

17:00/18:30 Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Errebal Plaza.
18:30 Sardinen entierri txikia, Jainaga trikitilariak lagunduta.
19:00 Umeendako diskoteka, Arima Cool Tour taldearekin. Errebal Plaza.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Redada familiar" (Vaivén). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

EGUAZTENA 22

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Familia sarekada" (Vaivén). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

EGUENA 23

HITZALDIA

10:00/12:00 "Adrian eta mozkorraldiaren historia", Urko Barrosen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

ODOL EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

EZTABAIDA SAIOA

19:00 Itsasargia proposamen politikoa eztabaidagai (Gure Esku). Arrate Kultur Elkarte.

FRAKUSKETAK

Otsailaren 19ra arte:

- "ERREFUXIATU SAHARAUEN KANPAMENDUAK" Jose Luis Irigoienek argazkiak. (Topaleku).
 - "ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBARREN II" Manuel Zabalen maketak. (Armagintzaren Museoa).
 - "BEARDAN BEZELA (GEHIENETAN)" La Taller grabatu-eskola (Portalea).

Otsailaren 28ra arte:

- "CUBA, EGUNEROKOAN MURGILTZEN" Fernando Alonsoren argazkiak. (Klub Deportiboa taberna).
 - IRENE DEL PINOren argazkiak. (Portalea taberna)

Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Armagintzaren Museoa).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 18an: 19:30, 22:30
- 19an: 20:00
- 20an: 20:30

“Decision to leave”
DRAMA



2022/Korea/138'
Zuzendaria: Park Chan-wook
Aktoreak: Tang Mei, Park Hae-il,
Park Yong-weo
Intriga/Erromantzea/Hilketa

2 ARETOA

- 18an: 16:30, 19:30, 22:30
- 19an: 17:00, 20:00
- 20an: 20:30

“El triángulo de la tristeza”
UMOREZKOA



2022/Suedia/149'
Zuzendaria: Ruben Ostlund
Aktoreak: Harris Dickinson,
Charibi Dean, Zlatko Buric
Komedia beltza/Biziraupena

ANTZOKIA

- 18an: 17:00 (1), 19:45, 20:00
- 19an: 17:00 (1 Aret.), 20:00
- 20an: 20:30

“La niña de la comunión”
BELDURREZKOA



2022/Espainia/98'
Zuzendaria: Victor Garcia
Aktoreak: Carla Campra,
Aina Quiñones, Marc Soler
Terrorrea/Amesgaiztoa

ANTZOKIA

- 18an: 17:00 (2 Aret.)
- 19an: 17:00

“El chico león”
ANIMAZIOA



2021/Txina/104'
Zuzendaria: Sun Haipeng
Drama eta komedia nahastuta

FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO ERREKATOBIA
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kailon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Felix Bergara Zurutuza *apaiza*
10. URTEURRENA (2013/02/22)

“Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik”

Haren aldeko URTEURREN MEZA ospatuko da domekan (otsailak 19), 10:30ean, AZITAINGO parrokian.



- M^{re} CARMEN HAREN IDAZKARIA, SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK -

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARA!**
Astelehenian 9 urte
beteko dozuz-eta.
Musu pillua
famelixaren partez.
Maite zaittugu,
bihotza.



Zorionak, **UXUE!!!**
Martitzenian 8 urte
bete zenduaz-en-
eta. Patxo haundi
bat famelixakuen
eta, batez be,
Maialenen partez!



Zorionak, **ALEX!**
4 urte potolo! Pillo
bat maite zaittugu.
Zure famelixaren
partez.



Zorionaaak, **NURA,**
etxeko sorgiñori!
Martitzenian 6 urte
bete zenduaz-en-
eta. Musu potoluak
etxekuen partez.



Zorionak, familia! **AMAK** 18xan,
PAULEK 21ian eta **AITTAK**
23an. Otsailla, gure ospakizun
hillabetia! Musu potolo bat
amatxoren partez.



**Juan Antonio
Hernandez Manzano**

3. URTEURRENA
2020/02/20

**“Inoiz ez zaitugu
ahaztuko. Betiko
egongo zara
gure bihotzetan”**



- ETXEKOAK -

**Jose Luis Prieto
“Txelu”**

2. URTEURRENA
2021/02/19

**“Egunero
gure inguruan.
Ez zaitugu
ahaztuko”**



- IDOIA, AITOR ETA IGOR -

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
- Eibartar gazte batek baserria erosiko luke Eibarren. Edozein egoeratan dagoelarik, ikuste-ko prest dago. 688631803.

1.2. Errentan

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Eibarren (bestela, Ermuan, Elgoibarren edo Soraluzen). 672860969.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.
- Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Eibar inguruan. 688642761.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagirarekin eta baita ospitalean ere) eta etxeko garbiketarak egiteko. Orduka. 667060292.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta taberna edo jatetxe batean lan egiteko. 632419944.
- Neska eskaintzen da arratsaldean umeak zaintzeko. 649025614.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin). 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 613432184.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-

tzeko eta garbiketarak egiteko. 685724861.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia erizain bezala. 613744564.
- Kanpoko etxe-zerbitzuan esperientzia handiko neska eskaintzen da. Euskal sirdaldiritza tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran daudenentzako Arreta teknikari tituluarekin. 699473761
- Gizonezkoa eskaintzen da baserrian lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643396874.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 674457727.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631319476.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 602051567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 679828576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita gauzez ere. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 631489919. Tatiana.
- Mutila eskaintzen da elektrizista bezala, obretan jarduteko eta sukaldari moduan. 631640054.

4.2. Langile bila

- Ileapaintzailea behar da jor-nada osorako. 619928881.
- Dendaria behar da modadenda batean. Arratsaldeko ordutegian. Laga curriculuma Closet dendan (Estaziño, 10).
- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsaldean, martitzenetik

zapatuta. Bidali curriculum: eibartienda@gmail.com.

- Langilea behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.
- Ileapaindegi batean esteticien edo/eta azazkaletan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).
- Gizon nagusia zaintzeko pertsona behar dugu, etxean biziko dena. Zertifikatua egotea derrigorrezkoa da. 620888320..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatearen prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. Vals, tango, swing... erritmoak. 400 euro. 943752480.
- Patinete elektrikoa, kaskoa eta euritako sira salgai. Estrenatzeko. 695752700..

6.3. Galdu/Aurkitu

- Urkizu parkean ume-motxila grisa (eskola-liburuekin) galdu zen. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 618286985. Andoni.

HOTEL ASADOR ARRIARTE

OSPATU GUREKIN ZURE
EKITALDIAK!!

EZKONTZAK, JAUNARTZEAK, URTEBETETZEAK
ENPRESA-EKITALDIAK
KINTADAK...

"Parvella arte bihurtzen dugu"



"Jangela ederra dugu"



"Gozatu gure terrazak"



Facebook icon: **SARRAITU GAITEZU ETA
EZAGUTU GURE BERRITASUNAK!**

Phone icon: **943 702 967**

Location pin icon: **ARRATE BALLE, 34 EIDAR**



WWW.HOTELARRIARTE.COM

HURRENGO EKITALDIAK

• ZAPATUA 18 ARATOSTE JAIA
HAUDDRENTZAKO JARDUERAK DOAN
(10.00-12.30)

• ZAPATUA 25 "WONDERFULL" MUSIC"
ZUZENERO MUSIKA-EKITALDIA (14.00)

zarelako para

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Tfnoa / emaila _____

NAN _____

Jaiotze data _____

K/K zenbakia _____

eta kitto!
eusgara elkarteak

Urkizu 11

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren 13tik 24ra



URKIZU

943 89 91 47



SAN ANDRES

943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA

943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI

943 20 72 35



AMAÑA

688 68 72 89



AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 13TIK 24RA

www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

EUSKADI SAHULAKITZA

GOBIERNO YA3CO



EIBAR BHI

JARDINETZA, 3 B

DBH 3, 4 + Batxilergoak + ZIG

943 89 92 62

www.eibarbhi.eus



EIBAR BHI

ISASI, 37

DBH1, 2 + Gautenako gela orokorra

943 89 92 11

www.eibarbhi.eus